

Bilbon, 2012ko apirilaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Peillen, Txomin,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles,
eta Zabaleta, Patxi,

Erramun Osa, idazkariordea,
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
eta Alfontso Mujika euskaltzain urgazlea,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Sagrario Alemanek ahala A. Iñigori; Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k ahala A. Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala A. Iñigori; Pello Salaburuk ahala M. Azkarateri; Ibon Sarasolak ahala M. Azkarateri; Mikel Zalbidek ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondoren, euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

1. Aurreko akta onartzea. J. L. Lizundiak eta A. Iñigok ohar batzuk helarazi dituzte eta, idazkariak horiek kontuan harturik, aurreko batzarraren akta ontzat eman da. P. Goenagak proposamen bat egin du idatziz, bere hitzak argitzeko. Onartu da, eta euskaltzainburuak zati bat gehituko du, bere esanak ere hobeki azalduz gera daitezzen.

2. Exonomastika

2.1. «Hegoaldeko eta Erdialdeko Amerikako toponimia» araugaia onartzea.

J. L. Lizundiak aurkeztu du. X. Kintanak egindako oharra dela eta, hitza egileari eman dio. Oraindik ofizialtasunik ez duten herri eta hizkuntzen aldekoa izan da oharra, izen horiek ere, orain ofiziala denaren aldamenean bada ere, jartzeko. Ontzat eman da.

J. Haritschelharrek atzerriko izenetan *c-* eta *q-* en ordez euskal alfabetoko ohiko *z-* eta *k-* zergatik ez diren beti erabiltzen galdera dela eta, J. L. Lizundiak eta A. Mujikak horren arrazoiak azaldu dituzte, ahoz eta idatziz. J. L. Lizundiak potentzia kolonialek (español, portugues, frantses, ingelesa) Amerikan izandako eragin ezberdinak gogorarazi ditu, eta zuhurrena kasu horietan beste hizkuntza nagusietan bezalatsu jokatzea dela azpimarratu du.

P. Goenagak arauk batzuetan sorrarazten dituzten zalantzak (*Salamanca* baina *Kordoba*, adibidez) aipatu ditu, hor, itxuraz behintzat, beti irizpide berbera erabiltzen ez delako. J. Lakarrak ere kezka bera erakutsi du, eta tradizioari begiratzeko eskatu du. J. L. Lizundiak orain arteko irizpidearen zergatiak eta oinarriak azaldu ditu, toponimo guztietan ezin dela irizpide berbera mantendu esanez, kasu bakoitzaren geografia eta historia bereziaren gorabeherak gogoan izanda. Erkidego autonomoen arteko ezberdintasunak ere aipatu ditu. Azkenean, Amerikako Hego eta Erdialdeko toponimoen zerrenda onartu da.

Ipar Amerikako toponimoen zerrendari dagokionez, ekarpenak maiatzaren hogeita batean aurkeztu behar dira, beranduenez. Horiek horrela, araugaiaren zati hau hurrengo Osoko bilkuran aztertu eta onartuko da, hala erabakiko balitz.

3. *Hiztegi Batua*, 2. itzulia, azken atala, onartzea.

Aurreko Osoko bilkuran agindu bezala, X. Kintanak ohartxo bat aurkeztu du, erdarazko *Padres de la Iglesia*/*Pères de l'Église* kontzeptua euskarara itzultzeko modu egokiaz, *aita* eta *guraso* artean bereizten duten hizkuntzetan hor *aita* hitzaren inguruan daukaten erabateko batasuna argudiatuz. Euskaltzainburuak idatzi hori *Hiztegi Batuko* lantaldeak azter dezan proposatu du, ostean zer egin erabaki ahal izateko. Halaxe egitea onartu da.

Hiztegi Batuko 2. itzuliko azken atalari egindako oharra direla eta, buruak A. Sagarnari hitza eman dio. Epearen barruan X. Kintanaren eta P. Uribarrenen oharra heldu dira. Bien oharrei erantzun idatzi eta dokumentatua eskaini die A. Sagarnak. X. Kintanaren oharrekin hasi eta *janizarotik martzianorainokoak* aztertu

dira, kasuan kasuko erantzuna emanez. Denborarik ezaz, besteak hurrengoan (X. Kintanaren *miszelaneatik* aurrera eta P. Uribarrenek egindako guztiak) agertzeko utzi dira. Era berean, X. Videgainen oharrak Osoko bilkuraren bezperan iritsi direla azaldu du idazkariordeak. Azken hauek ere hurrengoan aztertuko dira Osoko bilkuran.

4. 2012. urterako aurreikuspenen garapena.

Joseba Zabaleta kudeatzaileak hitz egin du, eta lehengo aurreikuspenekin alderatuta Euskaltzaindiak Madrilgo Hezkuntza ministeriotik 39.065 euro gehiago jasoko dituela azaldu du. Gasteizko Udalak, aldiz, 31.000 euro emango ditu, hots, iazkoaren erdia. Bizkaiko Foru Aldundiak, ordea, 115.000 euro gehiago emango ditu. Horiek horrela, aurreko Osoko bilkuran aurreikusitakoak baino 185.000 euro gehiago jasoko ditu Akademiak. Kopuru honekin 2012. urteko amaiera arteko finantzaketa bermaturik legoke, zerbitzu-emailei urtearen bukaera arte ordainduz.

A. Arejitak bere poza agertu du. J. Zabaletari informazioa eskertu zaio.

5. Langune elkartearen aurkezpena

Euskaltzaindiaren batzar aretora sartzean, A. Urrutiak erakundearen ongi etorria eman die Josu Waliño-ri, hots, Hizkuntza Industrien Elkarteko Languneren presidenteari, eta Fernando Alanari, zuzendariari. Ondoren beren elkartea zer den eta zertan diharduen azaldu dute euskaltzainen aurrean, merkataritzan daukan eragin-sarea argituz. Sektoreak munduko rankingean daukan indarra eta kokapena ikusita, P. Goenagak datu horien fidagarritasunaz galde egin die. A. Arkotxak Iparraldeko elkarte, erakunde edo unibertsitateen partaidetza zertan den galdetu du. P. Goenagak azalduetako zalantzari erantzunez, Languneko ordezkariak berariaz azterketa bat eskatu zutela eta emandako datuak hortik atera dituztela baieztatu dute. Bigarrenari buruz, ostera, elkartearen helburuen artean Iparraldekoen partaidetza bideratzea dagoela adierazi dute.

Ondoren Euskaltzaindiarekin lankidetzaz hitzarmena sinatu dute.

6. Euskaltzaindiaren plan estrategikoaren garapena eta zerbitzuetako plangintzen aurkezpena

E. Osak izan du hitza eta zerbitziburuekin segitu den prozeduraren berri eman du. Oraingoan Onomastika, Prentsa eta Informatika arloko urteko plangintzak aurkeztuko dira, maiatzeko Osoko batzarrean onartzeko. Maiatzeko Osoko bilkuran Azkue Biblioteka, Argitalpen banaketa zerbitzua eta Argitalpen zerbitzua eremuei

dagozkien plangintzak aurkeztuko dira. Zerbitziburuek dituzten aurreikuspenak azaldu ondoren, horiek, beren kasuan euskaltzainen oharrekin osatuko dira.

Mikel Gorrotxategi mintzatu da, Onomastikako zerbitzuaren arduraduna. Bere arloko lana zertan den azaldu ondoren, egin zaizkion galderei erantzun die. X. Vi-degaineak pertsona izendegia ea noiz berriztatu den galdetu dio. Lan horri aurten ekingo zaiola erantzun dio. M. Azkaratek jakin nahi izan du ea erakunde ofiziale-tatik galdera asko jasotzen ote diren. Erantzunean, baietz esan dio, batzuk banan-banakako udaletatik heltzen direla, baina, batez ere EUDELen bitartez. Era be-rean, erregistro zibiletatik ere kontsulta ugari jasotzen direla azaldu du, bai eta Nafarroako udalerrietatik ere.

A. Sagarnak jakin nahi izan du zer egiten den zerrendan agertzen ez diren izene-kin. Zerbitziburua horretarako dagoen prozedura azaldu du.

Amaia Okariz, Prentsa eta Komunikazio Zerbitzuaren arduradunak Euskaltzain-diarekiko albisteak nola biltzen, moldatzen eta Euskaltzaindiaren jardunbideaz in-formazioa interesatuengana nola helarazten dizkien azaldu du. Web orria, *Plazabe-rrri*, albiste-orria etab. prestatuz. Ondoren, A. Arejitak eginiko galderari, hots, ea argazkiak etiketatzen diren, baietz erantzun dio.

Azkenik, Iñaki Kareaga Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuaren buruak izan du hitza, bere arloko egitekoen berri emateko. Une honetako egitekorik behi-nenak jada martxan dauden sistemak mantentzea eta etengabeko berrikuntza tek-nologikoak lantzea direla esan du, beti ere IKT taldearen agindupean. A. Arejitak, berriz, Informatika Zerbitzuak. Hizkuntza-Atlasarako ere lagundu duela esan du.

Hirurei eskerrak eman zaizkie eta euskaltzainei oharrak maiatzaren 21erako bi-dali beharko direla gogoratu zaie.

7. Eskuarkeak

7.1. 2012. urteko egutegia. Osoko bilkurez aparteko aurreikuspenak

A. Urrutia euskaltzainburuak 2012ko osoko bilkurez aparteko aurreikuspenak azaldu ditu. Horren arabera hemendik aurrerako egutegia, hona hemen:

Maiatzaren 25ean Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, Osoko bilkura.

Ekainaren 29an, Bilbon, egoitzan, Osoko bilkura.

Uztailaren 20an, Gasteizen, osoko eta ageriko bilkurak. EHS aurkezpena (*Argibide bibliografikoak*, EHS bilduma, edizio digitalaren aurkezpena).

Irailaren 28an, Iruñean, osoko eta ageriko bilkurak. EHHAREN IV. liburukiaren aurkezpena.

Urriaren 18-19an, Bilbon, Osoko bilkura eta Hiztegitzari buruzko jardunaldia, Jose Antonio Uriarte gogoan.

Azaroaren 16an, Baionan, Ageriko bilkura, XVII. Jagon Jardunaldia (Sustapen batzordeak antolatua).

Abenduaren 14an, osoko eta ageriko bilkurak. Euskaltzaindia sariak.

P. Goenagak urriko bilkuraren eta jardunaldien antolaketaz galde egin du. Euskaltzainburuak hori oraindik erabakizun dagoela erantzun dio.

7.2. Diruzainaren kargu uztea

J. L. Lizundia euskaltzainak aurreko batzarrean aurkezturiko dimisioa oraingoan berretsi du. Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio diruzain karguan izandako arduragatik, eta, orain arte Euskaltzaindiaren alde hainbat urtetan eginiko lanengatik.

7.3. Bestelakoak

7.3.1. Gaur banatuko diren liburuak:

- 1) **Sarako Azokan aurkeztu zirenak**, hots, apirilaren bederatzian eta EEP erakundearekin 2011. urtean izenpetu zen hitzarmenean jaso zirenak:
 - a) *Onomastique du Nord du Pays Basque (XIe-XVe siècles)*. Egilea: Eugène Goyheneche. Prestatzailea: Xarles Videgain.
 - b) Gratien Adema «Zaldubi»ren *Bertze prediku batzuk*. Prestatzailea: Henri Duhau.
 - c) *Xiberoko antzertia edo Pastoral*. Egilea: Junes Casenave-Harigile.
 - d) *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs eta la langue basque en Pays Basque Nord*. Egileak: Erramun Baxok eta Jean Baptiste «Battitu» Coyos.

Azken liburu hau Euskaltzaindiaren Baionako ordezkariaren ere aurkeztuko da maiatzaren hemezortzian, baina J. B. Coyosek azaldu duenez, liburua jada Sarako azokan agertua izan zela eta, beldur da ez ote den jende gutxi izanen.

- 2) **Gernikaren bonbardaketaren 75 urteurrena gogoratzuz**, lau idazlek, horien artean Bernardo Atxaga euskaltzainak, *Bonbak eta bizitzak* izeneko liburuko testuak prestatu dituzte, eta bertako udalak eta BBK finantza erakundeak edizioa argitara eman. Erdarazko lanen euskal itzulpenaren edizioa Xabier Kintana euskaltzainak egin du, Euskaltzaindiak eta BBK-k daukaten lankidetzaren hitzarmenaren barruan. Euskaltzaindiko idazkariari eskerrak eman zaizkio, itzulpenak ezer kobratu gabe egin ditu eta.

7.3.2. UNE (Unión de Editoriales Universitarias Españolas) Sariak 2012. Euskaltzaindiak aurten sari horietara honako argitalpenok aurkeztuko ditu:

- a) Ongienik editaturiko lana: *ATLAS III* eta *Euskal Herriko Udalen Izendegia*.
- b) Giza Zientzietarako ongien editaturiko monografia: *Argibide bibliografikoak* (lehen emanaldia) EHS bilduma, 1 zenbakia.

Bilduma onenaren saria: *IKER bilduma*.

7.3.3. Euskaltzaindiaren eta EEPren arteko 2012. urteko hitzarmen gehigarria:

A. Arkotxa euskaltzainburuordeak azaldu duenez, atzo, apirilak 26, Euskara-aren Erakunde Publikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko bilera egin zen Baionan, urteko hitzarmenaren gaia tratatzeko. Akademiaren izenean, Andres Urrutia burua, A. Arkotxa buruordea eta J. L. Lizundia diruzaina izan ziren, arras ongi errezibituak izan ziren. Urteko hitzarmen gehigarrian lau ardatz zehaztu dira: batetik, hiru liburu argitaratzea (J. L. Davant, Abbadie-ri buruz; Tx. Peillen, J. Mirandere-ri buruz; eta H. Duhau, Zaldubiri buruz). Guztiak «Euskaltzainak» bilduman argitaratuko dira; bestetik, onomastikaren alorreko lankidetzak; hirugarrenik, tes-tuen hizkuntza-balioztapena; azkenean, azaroan Sustapen batzordeak egingo dituen jardunaldiak.

7.3.4. Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kiroleko ministroaren gutuna:

José Ignacio Wert Espainiako Hezkuntzako ministroak Euskaltzaindiari gutun baten bidez zorionak bidali dizkio, aurtengo martxoan Madrilan, Espainiako Erret Akademian antolatatu zuen ekitaldiagatik. Era berean, euskaltzainei zorionak helaraztea ere eskatu du.

8. Hilberriak

Patxi Salaberri euskaltzainaren amaren heriotzaren berria eman da. Era berean Jean-Baptiste Dirassar-Hiriart Urruty euskaltzain ohorezkoaren emaztea zendu dela jakinarazi da. Osoko bilkurak bie doluminak bidaltzea erabaki du.

9. Azken ordukoak

9.1. R. M. Azkue sariak 2011

Maiatzaren 22an banatuko dira egoitzan. Euskaltzainei honen berri maiatzaren bigarren astearen amaieran emango zaie.

9.2. Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko bilkura. Akademiaren datorren Osoko bilkura maiatzaren 25ean izanen da, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

Batzarra ordu biak eta hogeian amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria